

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Funky lobsta, gazteentzat bideratuta egongo da gehienbat, izan ere, tabernetara festan gehien ateratzen direnak hauek dira. Baina argi dago, tabernetan dauden edozein pertsonak erabil ahal izango dutela gure app-a ere, zaharrenak ere, gure aplikazioak tabernetan musika eskatu eta jartzeko zerbitzua eskeintzen duelako.

Zerbitzu hau, erabilgarria izango da musikaren eraginez festa gau edo egun batean aspertzen ari diren horientzako, app-an sartu eta azkar batean tabernako musika aldatzeko ahalmena izango dutelako, hori bai, beti euro bat besterik ez ordainduta eta aurretik abestiren bat badago, abesti hori edo horiek eta gero erreproduzituko dela jakinik. Zerbitzu honek, gau askotan gertatzen den arazo hori konpontzeko aukera ematen du, lehen egin ez zezakeena.

Gure enpresak izango duen app-a, guztiz dohakoa izango da instalatzeko orduan, eta barruan egongo da zerbitzuaren informazio guztia eta herri eta taberna hautatzeko aukera. Abestia erreproduzitzeko nahi duzun taberna hautatu eta jarri nahieko abestia aukeratu ondoren, euro bat ordaindu beharko da zuzenean mugikorretik txartela erabiliz edo tabernariari euro bat emanez berak kodigo bat ematearen truke abestia eskatu ahal izateko. Orduan, eskuragarritasuna erraza da eta ez da guztiz dohakoa baina merkea dela esan genezake.

